

## PRENTSA OHARRA / NOTA DE PRENSA

BILBOKO JAI GUNEAN DAGOAN TXOSNA BATEN `CARNICERÍAS VATICANAS` DERITXON IRUDIEN KONPOSIZIO BLASFEMOAREN AURREAN BILBOKO GOTZAITEGIAK HONAKO HAU ADIERAZI GURA DAU:

- 1. Irmoki salatu eta arbuiatzen** dogula bilbotar eta bizkaitar ugariren barru-barruko sentimentuen eta sinismenen kontrako eraso hau.
- 2. Txosnako arduradunei irudiak kendu daiezela** eskatzen deutsegue.
- 3. Erakunde publikoen babesa eta esku hartzea** eskatzen dogula eurak diralako erlijio sinismenen eta herritarrenganako begirunea zaintzearen arduradunak gizartearen alkarbizitza baketsuaren alde.
- 4. Gotzaitegiko zerbitzu juridikoek** erlijio askatasunaren eta kristinau alkartearen begirunearen kontra eraso egiten daben irudi honeen erakusketa publikoa dala-ta eratorri daitekezan **ekintza legalak aztertuko dabezala.**
- 5. Aste Nagusia begikotasunez eta zintzotasunez** ospatu daigula.

Bilbao, 19-08-2017